Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

2026ICGO0007
2026KHTZ003, 2026KHTZ010, 2026KHTZ001, 2026KHTZ009, 2026KHTZ008

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

Alkateak eskuordetuta, 2026ko apirilaren 28an egindako ohiko tokiko gobernu batzordean, aho batez, AJAko 206 artikuluaren salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Kultura eta jaiak zerbitzuko dirulaguntza izendunak: Txirriskla, Denak Bat, Aiztondo, Santiagomendi, Zipotza.

Lehena.- **Txirriskla txistularien elkarteari 13.200€ dirulaguntza izenduna onartzea**, txistulariek igandero diana eta urtean zehar Astigarragan eta bere auzoetan ospatzen diren jai, ospakizun eta ekitaldi nagusietan jotzeko, Iruñako San Fermin txikitoren jaian partehartzeko eta Iruñako erraldoi eta kilikien kalejira antolatu eta bertan parte hartzeko.

Bigarrena.- **Danak Bat elkarteari eskatutako 30.000€ dirulaguntza izenduna onartzea,**, abuztuaren 21etik 24ra bitarteko Ergobiako auzoan jaiak antolatzeko, hau da, 1.500€ haurren ikuskizunetarako, 6.000€ musika kontzertuetarako, 11.000€ herri kiroletarako, 3.000€. Sagardo dastatzerako, 2.000€ pirotekniarako eta 6.500€ azpiegitura eta aseguru gastuetarako.

Hirugarrena.- **Aiztondo abesbatzari 22.000€ dirulaguntza izenduna onartzea,** abesbatzak urtean zehar herrian eskainiko dituen sei emanaldi, abesbatzaren prestakuntza artistiko eta elkartearen kudeaketa gastuak laguntzeko.

Laugarrena.- **Santiagomendiko auzo elkarteari 4.000€ dirulaguntza izenduna onartzea,** Santiagomendiko jaietako haurrentzako ikuskizun eta jolasak (1.000€ inguru), musika emanaldiak (1.250€ inguru), kirol arloko ekitaldiak (1.500€ inguru) eta jaien inguruko azpiegitura eta aseguru gastuetarako.

Bosgarrena.- **Zipotza elkarteari 5.500€ dirulaguntza izenduna onartzea,** Inauterietako kalderoen konpartsa, bertso saio musikatu bat, Santio jaietan musika emanaldi bat, sukaldaritza tailerra, uda hasierako jai eguna eta urtean zehar hainbat hitzaldi antolatzeko.

Seigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2026ko apirilaren 28an

Xabier Urdangarin Lasa
Alkatea

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko Idazkaria